

udaltop

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**



IZENBURUA:

**16 urtez azpikoen kirola:
antolamendua eta araubidea EAEn**

EGILEA:

Andoni Irujo

DATA:

2016/04/21



Aurkibidea

1. Sarrera.....	1
2. Kirolaren araubidea Nafarroan eta eskola adineko kirola.....	4



1. Sarrera

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiet Udaletako Euskara Zerbitzuen Topaketako antolatzaileei, bertan parte hartzeko emandako aukeragatik.

Idazlan honen gaia izango da 16 urtez azpiko gazteen kirol jardueraren araubidea eta antolamendua Nafarroan; orobat, euskarazko kirol jardunaren egoera eta sustapenerako gomendioak.

Jakina denez, Nafarroa oso anitza da eta euskarazko kirol jarduna oso ezberdina da Nafarroako eremuen arabera. Aintzat hartu behar da Nafarroako Euskararen Legeak Nafarroako eremuen arteko aldea areagotu duela, euskararen ezagutzari eta erabilerari dagokienez. Izan ere, Nafarroako eremu euskadunean euskararen ezagutzak eta praktikak gora egin dute (populazioaren %60). Eremu mistoan ere euskararen ezagutza mailak gora egin duen arren, erabilerak ez hainbeste (populazioaren %12,4), eta eremu ez euskaldunean ezagutzaren igoera txikiegia izan da (populazioaren %3,8). Beraz, laburbilduz, Nafarroan euskararen egoera hobetu den arren, aurrerapena ez da oso handia izan azken 20 urte hauetan. (1)

Bestalde, 5 eta 14 urte bitarteko populazioaren ezagutzaren datuak begiratzen baditugu, euskararen egoera itxaropentsuagoa da. Eremu euskaldunean %91,83 elebidunak dira; eremu mistoan %48,93, eta eremu ez euskaldunean %30,84. Datu hauek aukera ematen dute gazteen euskarazko kirol jardunaren eskaintza egin eta zabaltzeko. (2)

Kirola eta jarduera fisikoa oso errotua daude Nafarroan, eta gaur egungo gizartean ekintzarik garrantzitsuenetako bat dira bizi kalitatea hobetzeko. Belaunaldi berrien hezkuntza integralerako ere ezinbestekoa da. Kirolak ahalbidetzen ditu pertsonen arteko harremanak eta, jakina, hizkuntza beste egoera eta beste erregistro batean erabiltzeko aukera. Horregatik, Udaltop-ek jardunaldi hauetarako hartu duen gaia oso interesgarria da alde guztietatik.

(1) Datuak atera dira 2011ko Nafarroako Mapa Soziolinguistikoa lanetik (Nafarroako Gobernua).

(2) Elebidunen portzentajeen artean kontuan hartu dira elebidun aktiboak eta pasiboak. Azken hauek handitu egiten dira eremu euskaldunetik eremu ez euskaldunera (%6,07, %16,83 eta %18,43, hurrenez hurren).



2. Kirolaren araubidea Nafarroan eta eskola adineko kirola

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.14 artikulua Nafarroako Foru Komunitateari erabateko eskumena ematen dio kirolaren sustapenean eta aisialdiaren erabilera egokian. Ondoren, urtarrilaren 24ko 335/1986 Errege Dekretuaren bitartez, kirolaren arloko eginkizun eta zerbitzuak eskualdatu ziren Estatuko Administrazioetik Nafarroako Foru Komunitatera. Foru Komunitateari esleitu zitzaizkion eginkizunetako bat, espresuki aipatua, eskolako kirol jardueraren sustapena eta antolaketa da.

2001ean, berriz, Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legea argitaratu zen. Bertan, kirol politikaren helburuak aipatzen dira, 3.5 artikuluan; besteak beste, oinarritzko kirola bultzatzea eskola maila guztietan beste edozein kirol jardueraren aurretik, hori funtsezkotzat jotzen baita kirolak maila orotan aurrera egin dezan Nafarroan.

III. tituluaren eta 1. kapituluaren, kirola guztientzako jarduera gisa definitzen da eta aipatzen dira Nafarroako Kirol Administrazioak egin beharreko sustapena eta antolamendua. II. kapituluaren eskola adineko kirola eta ikastetxeko kirol kluba jorratzen dira.

Besteak beste, esaten da Foru Komunitateko Kirol Administrazioak sustatu eta antolatuko duela Foru Komunitateko Hezkuntza Administrazioak, kirol erakundeek eta beste erakunde publiko eta pribatuek eskola adineko kirola bultzatzeko programak egitea. Programen jomuga izanen da eskola-hezkuntza integralaren, nortasunaren garapen orekatuaren, baldintza fisikoen eta osasun ohitura prebentiboen osagarri izatea. Halaber, aurreikusi eta sustatu beharko dute hezkuntza behar bereziak dauzkaten ikasleak integra daitezen.

Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legeak eskola adineko kirolaren definizioa egiten du: “eskola adineko kirol jardueratzat hartuko da antolaturiko kirol-ekintza, eskola-umeek eta gazteek eskola orduz kanpo egina baldin bada”.

Orain arte aipatutako legeetan, ez da ezer aipatzen kirolaren eta euskararen inguruan. Gaur arte Nafarroako Gobernuak, kirol legeetan, ez du ezer arautu kirol ekintzak euskaraz burutzeko aukeraz eta eskubidez.

Legean ezberdintzen ez badira ere, komeni da bereizketa txiki bat egitea eskola adineko kirol jardueren eta eskola kirolaren artean:

Eskola adineko kirol jarduerak: Jarduera hauek Nafarroako Gobernuak, udalek (eta beste toki erakunde batzuek), kirol federazioek eta kirol talde edo klubek sustatu eta antolatzen dituzte. Jarduera hauen ezaugarriak honako hauek dira:

1. Kirol edo jarduera fisiko antolatuak dira.
2. Eskolako umeek eta gazteek hartzen dute parte.
3. Eskola-orduez kanpo egiten dira.



Eskola-kirola: Kirol jarduera hauek ikastetxeak edota ikastetxeko guraso elkarteak antolatzen ditu. Ikastetxean burutzen dira edo ikastetxea da ardatza:

4. Ikastetxeak antolaturiko kirol edota jarduera fisikoa da.
5. Ikastetxeetan egiten da (edo ikastetxea du ardatza).
6. Eskola-orduez kanpo edo ordu horien barruan egina da.

Nafarroan D ereduko 114 ikastetxe daude (Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzakoak). Kirol ekintzak ikastetxean euskaraz burutzeko aukera, printzipioz, ikastetxe hauek egongo litzateke mugatuta. Ikastetxe batzuk D eredukoak dira bakarrik, eta beste ikastetxe batzuetan D eredia beste ereduekin batera dago (A, G edo PAI).

Eskola kirola euskaraz egitea baldintza hauekin dago lotuta: jarduera ikastetxeak edo bertako guraso elkarteak antolatzea eta bakarrik D eredukoak den ikastetxea izatea. Kasu horietan antolatzen diren jarduerak beti euskaraz burutzen dira.

2.-Eskola adineko kirola bultzatzeko programak Nafarroako Foru Komunitatean

Nafarroako Kirolari buruzko Legeak dio Nafarroako Administrazioak eskola adineko kirola bultzatzeko programak egitea sustatu eta antolatuko duela. Hori dela eta, hauek dira Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuan eskolatze aldiko ikasleentzat sustatu eta antolatu ditugun kirol programak:

- **Eskola adineko kirol jarduerak:** kirol federatua da programaren ardatza.
 - NAFARROAKO KIROL JOLASAK PROGRAMA
- **Eskola-kirola:** ikastetxeak dira kanpainaren ardatza.
 - ESKOLA KIROL KANPAINAK
 - Aste Urdina, Aste Berdea eta Aste Zuria
 - ESKOLA UME ETA GAZTEENTZAKO KIROL PROGRAMA

Nafarroako Kirol Jokoak programa

- Aurten XXIX. edizioa egiten ari dira.
- Kirol federazioekin egin hitzarmen baten bitartez burutzen da programa hau, lankidetzan.
- Nafarroako Kirol Jokoen antolaketa Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuari dagokio, eta horrek Nafarroako kirol federazioen esku uzten du antolaketa orokorra.
- Kirol federazioek, lehiaketa hasi aurretik, garatu beharreko kirol proiektua aurkeztu behar dute, erregulamendu teknikoa eta lehiaketa sistema.
- Kirol praktika egiten da federazioetan eta klubetan. Asteazken entrenamenduak eta larunbat goizetan lehiaketa. Programaren barruan, sustapenerako jarduerak eta jolas girokoak biltzen ahalko dira (adibidez, mendi irteerak, eskalada; boleibola, errugbia eta abar sustatzeko jarduerak egiten dira).



- Kategoriak:
 - Kimua: 2004-2005 tartean jaiotakoak (11-12 urte), LHko 5. eta 6. mailak.
 - Haurra: 2002-2003 tartean jaiotakoak (13-14 urte), DBHko 1. eta 2. mailak.
 - Kadetea: 2000-2001 tartean jaiotakoak (15-16 urte), DBHko 3. eta 4. mailak.
 - Gaztea: 1998-1999 tartean jaiotakoak (17-18 urte), Batxilergoko 1. eta 2. mailak.

Benjaminen kategoria (9-10 urte) sartU ahalko da, adingabeen kirol jarduera publikoen erregulazioa poliki-poliki aplikatzeko. Kategoria horretako jarduerak eremuka antolatuko dira, hurbiltasun geografikoaren arabera.

- Programaren helburuak:
 - Nafarroako herritar guztiei deialdiko kategorietan eta modalitateetan kirola egiteko aukera ematea, eta kirolak prestakuntzarako eta heziketarako duen balioa nabarmentzea.
 - Parte-hartzaileen ezaugarrien araberrako kirol jarduerak eskaintzea, integrazioarako bideak eskaintzeko eta kirolaren balioak bultzatzeko.
 - Gutxi errotutako kirol edo josteta motak bultzatzea adin horietan.
 - Kirolean gaitasuna duten haurrak atzemateko aukera izatea.
 - Teknikarien prestakuntza gero eta hobea eskatzea, parte hartzen duten kirol klubuen eta taldeen arduradunak gaituago egon daitezen beren eginkizunak hobeki gauzatzeko.
 - Kirol balioak sustatzea, hala nola, joko garbia eta kiroltasuna kirolarien artean eta haien inguruan (gurasoak, entrenatzaileak, delegatuak, arbitroak eta ikusleak).

Kirol federazioak eta modalitateak:

1. Urpeko jarduerak (igeriketa hegalekin).
2. Xakea.
3. Atletismoa (krosa eta pista).
4. Badminton.
5. Saskibaloia.
6. Eskubaloia.
7. Beisbola.
8. Txirrindularitza (BTT, errepidea eta pista).
9. Kirol egokituak.
10. Neguko kirolak (iraupeneko eskia).
11. Mendiko kirolak eta eskalada (orientazioa, ibilaldi arautuak eta eskalada).
12. Esgrima.
13. Futbola (zelaiko futbola, aretoko futbola eta nesken futbol 8a).
14. Gimnastika (NGA, GGA, GE).
15. Golfa.
16. Herri kirolak.



17. Zaldiketa.
18. Judoa eta K.E.
19. Karatea.
20. Igeriketa (igeriketa, waterpoloa eta igeriketa sinkronizatua).
21. Padela.
22. Irristaketa (abiadura eta hocheya).
23. Pilota (esku-pilota, zesta, erremontea, paleta goma, larrua, pala motza eta trinketea).
24. Piraguismoa.
25. Arrauna.
26. Errugbia.
27. Taekwondo.
28. Tenisa.
29. Mahai-tenisa.
30. Arku-tiroa.
31. Triatloia (triatloia eta duatloia).
32. Bela.
33. Boleibola.

Nafarroako Kirol Jokoen eragina:

Programa honen eragina oso handia da nahitaezko eskolatzeko aldiran. 22.012 kirolaririk hartzen dute parte. Hau da, eskola adineko gazteen %46k esku hartzen du Nafarroako Kirol Jokoen (Kimua kategorian sartu gabe). Kimua kategorian sartuta, eskola adineko gazteen %36k esku hartzen du Nafarroako Kirol Jokoen. Sexuak aintzat hartuta, %65 mutilak dira eta %35 neskek.

Programa hau osatzen da Eskola Adineko Espainako txapelketarekin

Euskararen presentzia programa honetan:

Kirol praktika egiten da kirol modalitate bakoitzeko kirol klubetan edo kirol eskoletan. Beraz, klub edo kirol talde bakoitzaren esku dago. Ez dugu datu zehatzik zenbat kirol taldek entrenatzen duen euskaraz. Edozein kasutan, talde gutxi izango dira eta eremu euskaldunekoak. Arazorik handienak dira taldeko kide guztiak euskaldunak izatea eta entrenatzaile egokia topatzea (euskalduna eta prestakuntza teknikoa duena). Orduan oso talde gutxi aritzen dira euskaraz programa honetan. Hala eta guztiz ere, salbuespenak daude. Adibidez, Herri kiroleko 9 taldeen artean, 8 euskaraz aritzen dira.

Federazioei dagokienez, berriz, Herri kiroleko federazioa da euskaraz funtzionatzen duen bakarra.

Nafarroako Kirol Jokoen programan ez dago ezer jasoa euskarari buruz eta kirol ekintzak euskaraz burutzeko esku-bideari buruz.

Eskola Kirol Kanpainak. ASTEAK. Ikastetxea da ardatza.

- ✓ Aste Urdina. Bela jarduerak
Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak eta DBHko 1. eta 2. mailak.



Belako XXIII. Eskola Kanpaina

Ikasle kopurua: 1.526

Ikastetxeak: 36 (D ereduko 5 ikastetxe). Aisialdiko jarduerak euskaraz egiten dira eta bela ekintzak erdaraz, bela monitore euskaldunak aurkitzeko zailtasunagatik.

- ✓ Aste Berdea. Naturako kirol jarduerak (raftinga, piraguismoa, arroietao jaitsierak, hidrospeeda...).

Naturako Jardueretako XIX. Eskola Kanpaina

DBHko 2. eta 3 mailetako ikasleak

Ikasle kopurua: 2.143

Ikastetxeak: 45 (D ereduko 14 ikastetxe)

Kirol jarduera guztiak euskaraz egiten dira.

- ✓ Aste Zuria. Ipar eskia. Lehen Hezkuntzako 6. maila eta DBHko 1. eta 2. mailak.

Ipar Eskiko XXXI. Eskola Kanpaina

Ikasle kopurua: 5.090

Ikastetxe kopurua: 117

D ereduko 33 ikastetxe izan dira, eta jarduerak euskaraz burutzen dituzte.

Kanpaina hauen helburuak dira:

- Kirol esperientzia berriak izan eta egiteko aukera ahalbideratu
- Kirol praktikaren ohitura sortu gazteengan
- Kirol balioak eta osasuna sustatu
- Elkarbizitza eta naturarekiko errespetua garatu

Kanpaina hauen helburua ez da euskararen erabilera sustatzea. Bermatzen da euskaraz ikasten duten ikasleei jarduerak euskaraz irakatsiko zaizkiela, besterik ez.

Eskola-umeentzako kirol programa

Programa honek diru-laguntza ematen die ikastetxeei, ikastetxeko kirola sustatzen duen programa bat egiteko. Programaren ardatza ikastetxea da, eta ikastetxeko gorputz hezkuntzako departamentua da antolatzailea eta ikuskatzailea.

Programaren helburua da nafar eskola-umeen josteta eta jolaserako jarduera fisikoak sustatzea, bertan heziketako eta jolas giroko osagaiak nagusi izanik, geroagoko adinetan modu jarraituan aritzeko bidea emanen duen ohitura fisiko bat sortzeko, bizimodu osasungarria bultzatzeko eta, horrela, zenbait gertakari galarazteko; esaterako, umeen egoneko bizitza eta obesitatea.

Xede horrekin, eskola orduetatik kanpo (baina betiere ikastetxearen babesean) kirol jarduera fisikoak egiten dituzten ikasleen kopurua handitu nahi da. Hortaz, ikastetxea da programa honen oinarritzko ardatza.

Programaren babesean egiten den jarduera fisikoak gizarte-integraziorako, osasunerako, ongizaterako eta jostetarako baliabide izan behar du; horrela, pertsonaren prestakuntza eta hezkuntza integralerako eta haren nortasuna garatzeko



lagungarria izanen da. Ahalegin pertsonala, talde lana, lankidetzeta, elkartasuna, tolerantzia, aurkariaren errespetua, joko garbia, genero berdintasuna eta antzeko balioak bultzatuko dira.

Programa honen helburuen artean ez dago ezer euskararen erabilera sustatzeari buruz. Ikastetxeari lotuta dagoenez, D ereduko ikastetxeetan euskaraz burutzen da programa hau. Ikastetxean hezkuntza ereduen nahasketa dagoenean, ez dago ziurtaturik euskaraz egingo dela.

Datuak:

- 2015-2016 ikasturtean 23 ikastetxek parte hartzen du (D ereduko 9 ikastetxe)
- Ikasle kopurua: 5.312
- Mutilak: 2.889 (%54,38)
- Neskak: 2.423 (%45,62)

Etorkizuna:

Eskola adineko kirolaren politikaren ardatza ikastetxeek izan behar dute. Azken finean, kirol instalazioak eta ikasle euskaldunak bertan daude. Nafarroako eskola adinero kirolaren politikaren helburuak izan behar du eskola kirola eredia sustatzea ikastetxeak ardatza izanda. Gaur egun Nafarroan eskola adinero kirolaren eredia kirol federatuarena da.

Kirol Administrazioak, Hezkuntza Administrazioak eta Toki Administrazioak urratsak eman eta elkarrekin lan egin behar dute, ikastetxeak eskola adineko kirolaren motorra izan daitezen. Bestalde, Nafarroako Lehenengo eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumak xedapen gehigarri batean esaten du Hezkuntza Departamentuak neurriak hartuko dituela ikastetxeek ariketa fisikoa sustatzeko programak egiteko. Ikastetxean kualifikazio egokia duen irakasleak programa diseinatu, koordinatu eta ikuskatzeko ardura izango du. Ikastetxeko gorputz hezkuntzako irakasleak izango dira eskola kirolari izaera hezitzaile eta berritzailea emango diotenak.

Lehen Hezkuntzako ikastetxeen instalazioak udalen menpe daude, eta hainbatetan bertako kirol instalazio bakarrak dira. Udaletan kirol teknikaria eta euskara teknikaria izaten dira. Nafarroako Kirol Institutuak eta udaletako kirol eta euskara teknikariek elkarrekin lan egin beharko genuke eskola adineko programetan euskara bultzatzearen. Gaur egun Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak abian du deialdi bat, udaletan kirol programak egiteko diru-laguntza ematen duena. Deialdi honetan kirol jarduerak euskaraz egiteko aukera eta babesa sartu beharko genituzke etorkizunean. Orain arte Nafarroako kirol politikaren barruan ez da inoiz ikusi kirola euskararen erabilera sustatzeko tresna bezala.

Ikastetxeak Hezkuntza Departamentuaren barruan daude. Kirol eta Gazteriaren Institutua beste departamentu batean dago, Kultura Departamentuan, hain zuzen ere. Horregatik, eraginkortasunari begira, bi departamentuek elkarrekin lan egin behar dute. Legealdi honetan bi departamentuen arteko harremanak hasiak dira eta eskola kirola lan agendan dago.



Nafarroan, Kirol Institutuak eskola adineko programa batzuk ditu, baina Hezkuntza Departamentuaren laguntza eta babesa handiagoa behar da, programa hauei bultzada emateko, kalitateari eta kantitateari dagokienez eta euskarari dagokionez.

Nafarroan oraindik lan handia egin beharra dago euskararen paisaia bisualean. Nafarroako Administrazioetik bertatik hasi behar da: errotulazioa, web-orri ofizialak, komunikazioa, dokumentazioa... Eta, honekin batera, diru publikoa jasotzen duten erakundeei (esaterako, kirol federazio, kirol talde eta udaletako kirol zerbitzuei) Euskararen Legea betetzeko agindu edo aurre-pausuak emanarazi.

(2)24/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculuma ezartzen duena.

60/2014 FORU DEKRETUA, uztailaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculuma ezartzen duena.